

GELDIARIK GABEKO ORDUTEGIA 365 EGUN /24 ORDU

NAFARROAKO GOBERNUAREN DOAKO ZERBITZUA

# SEXU-INDARKERIEN ARRETA INTEGRALEKO ZENTROA

caivs siaiz

Instituto Navarro para la Igualdad

INAI NABI

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

ZERBITZUAK ETA INFORMAZIOA EDOZEIN SEXU INDARKERIAREN EGOERAREN AURREAN

BIKTIMETAN ETA BIZIRIK ATERA DIREN PERTSONENGAN ARRETA BIDERATUTA

Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua




## Sexu-indarkeriek emakumeen askatasunerako, osotasun fisiko eta moralerako, berdintasunerako eta duintasunerako oinarrizko eskubidea urratzen dute.

Sexu-indarkeriatzat jotzen dira onartzen ez diren sexu-egintzak edo edozein esparru publiko edo pribatutan sexu-bizitza askatasun osoz garatzea baldintzatzen duten sexu-egintzak.

- Sexu-erasoak.
- Sexu-jazarpena.
- Besteren prostituzioaren ustiapena.
- Sexu-indarkeriako egintzak baliabide teknologikoen bidez hedatzea.
- Adostasunik gabeko pornografia eta sexu-estortsioa.
- Emakumeen genitalen mutilazioa.
- Ezkontza behartua.
- Sexu-konnotazioa duen jazarpena.
- Sexu-ustiapena helburu duen salerosketa.




## Zentroak laguntza espezializatua eskaintzen die 16 urtetik gorako emakumeei, egungo zein iraganeko sexu-indarkeriaren biktima izan direnei edo sexu-indarkerien ondoren bizirik iraun dutenei.

- Aurretiazko salaketarik behar izan gabe.
- Zuzeneko sarrera edo bertara bideratua.
- Aurrez aurreko arreta, baita telematikoa ere.
- Espazio segurua eta konfidentziala.
- Genero-ikuspegiarekin eta intersekzionalitatearekin.
- Arreta senideei eta hurbileko inguruneko pertsonei ere zabaltzen zaie, hala behar badute.
- Abokatuek, psikologoek, gizarte-langileek eta gizarte-hezitzaileek osatzen dute gure lantalde espezializatua.
- Emakume guztien eskura dago, haien administrazio-egoera edozein izanik ere.

## 24 orduz irekita 365 egun/urtean

848 463 999
caivs@fundaciongizain.es
www.caivs.es

INFORMAZIO GEHIAGO